

Aitor Galdos: Ziklokrosseko aurtengo Bizkaiko ta Euskadiko txapelduna

15 urte besterik ez. Denpora gitxian gorenengo mailletara igo dau. Ondo ezagutzen dau ziklismoaren mundua. Berba eitxen dabenian profesionala emoten dau.

-Noiz hasi ziñan konpetiziño mundu horretan?

-Lehen antxixiketan eitxen neban, krossian. Gero, 13 urtekin, bizikletia hartu neban, ta gaur egunian Renault-Durango taldiakin nabil.

-Honek urtiotan, ze karre-
ira irabazi dozuz?


-Infantilletan karrera batzuk irabazi nitxuan karreteran. Igaz bat irabazi neban ta beste danetan gorenengo puestuetan geratu nintzan. Aurten bost karrera irabazi ditzut, Euskadiko ta Bizkaiko txapelketak ta Espaiñiako txapelketan laugarren puestura allegau naz. Mallabiko Iban Goigana be, Bizkaiko txapelketan, bere maillan, lehena geratu zan.

-Zerk laguntzen dotsu irabazten?

-Entrenamenduak ta konbinaziño on batek.

-Zenbatero entrenatzen dozu?

-Astian bi aldiz, bata mendixan ta bestia karreteran. la-



Aitor Galdos ermuar txapeldun berria.

SANTOS VEGA

gun talde bat batzen gara ta gustora gabiz.

-Zelakuak dia zirkuituak?

-Ba tramo batzuk, 300-400 bat metro, karreteran eitxen dia. gaiñontzekua, menditxik.

-Zirkuitua alde z aurretik ezagutzen ahalegintzen zara?

-Ez, gaiñera ez da ona. Buruan buelta larregi emoten jakoz zirkuituari, zelan ingo dozun, zelakua dan... Ordu-bete aurretik ikusitxa nahikua da.

"Nik pedalei emoten eitxen dot biharra, baiña etxeuak asko laguntzen nabe."

-Karrera planifikatzeko ohituria dozu?

-Idea bat ein leikezu, baiña azkenian zer urtengo daben sekula be ez dakizu. Hasieran erritmo lasaixan juango zarala pentsau ta jausten bazara, aurreneko puestuak hartzeko sakatu ein bihar doutsezu. Karrera osuan gogor ekin bihar dozu, ta pentsautako plan guztixak hankaz gora geratzen jatzuz.

-Eurixa zein hotza ein, bardin entrenatzen dozeu?

-Bai, bai. Hotzak eskua izoztuta ekartzen doguz, ta eurixa eitxen daben bakoi-tzian basatzaz goraino etortzen gara, galdetu bestela etxian! Nik pedalei emoten eitxen dot biharra, baiña amak nire arropa danak atontzen ez dau bihar makala eitxen! Etxekuak asko laguntzen nabe zentzu guztixetan.

-Dana dala, kaleko jendiak bardin tratatzen zaitxu?

-Bai. lehen baiño interes haundixaua daukie, gehixao galdetzen doustie, animuak be sarri jasotzen ditzut,.. Gustora hartzen dozu, baiña bestien ilusiño horrek nerbio-so jartzen zaitxu, ondo korritzera apremixauta zagoz. Oin, ahalegin danak ein ta sartu ez banaz lehenen, ez jata larregi inporta.

-Ta neska artian orain exito gehixao dozu?

-Ez. Akaso lotsatixa nazelako edo, baiña ez daukat exito haundirik.

-Zer eitxen dozu domektan?

-Goizian korritzera juan karreraren bat euki ezker. Arratsalde lagunekin bueltatxo bat emon, berba ein, pelikularen bat ikusi. Lagunak be ziklistak diane, goizeko lasterketia erabiltzen dogu aho puntan, bakotzak zer ein daben, labandu ta zelan jauzi garen...

-Ze musika gustatzen jatzu?

-Taldea hau edo bestia baiño abesti soltiak gustatzen jataz.

-Astia dozunian zer eitxen dozu?



Ermuan badago txirrindularitzarekiko zaletasunik.

SANTOS VEGA

-Saski-baloira be gustora jokatzen dot. Baiña ziklismuan buru belarri sartuta bazagoz, ezin dozu beste kirolik ein. Esate baterako, astian zihar futbolera jokatzen badozu, hankak mindu eitxen jatzuz ta entrenamenduak ez

dotsu ezertarako balixo. Oin, lasterketarik ez badozu, ez dago iñungo arazorik. Ziklistontzat igerixan eitxia da kirolik egokixena, lepo aldia beti forzauta eruaten dogulako.

-Bateron batek irabazi bihar dau beti. Baiña ni bar-diña naz oin ta lehen. Gaiñera ikusten dot ziklismo munduan ez dauala "Jainkua" sentitzen dan hainbeste jende; profesionalak ahal daben neurrixan lagundu eitxen doskue, ta hori hasten gagozenontzako gauza haundixa izaten da.

**"Ziklismuan buru belarri
 sartuta bazagoz ezin dozu
 beste kirolik ein."**

-Ez dozu uste gazteegi hasi zarala gauza haundixak lortzen?

Estibalitz Gonzalez



Pub

SCORPIO


Zubiaurre, 21 behea
 ERMUA

ZABALA
 BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA
 BRIKOLAJEA
 OPARIAK
 ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
 Tfnoa. 17 09 17

MUGA



SEXTO CENTENARIO, 7
 Teléfono 17 64 77
 ERMUA

KIKOLAK

GADIFOL-en

Aukera guztiek

KODAK garantiaz

Komentukoa, z/g.
 Tlf. eta Faxe: 17 06 71



Estanko SOLOZABAL

Daniel Solozabal Areitio

Torrekua, z/g. • Tfnoa. 17 07 33
 ERMUA